



Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontratua prozedura ireki bidez esleitzearren GOIERRIKO EKIMENA, S.A.k (GOIEKI) deitu duen lehiaketaren Klausula Administratibo Partikularren Agiriaren karatula.

Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontratua prozedura ireki bidez esleitzearren GOIERRIKO EKIMENA, S.A.k (GOIEKI) deitu duen lehiaketaren Klausula Administratibo Partikularren Agiriaren karatula.

1. Kontratuaren izena	Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean enpresa inkubagailua izango den eraikina egiteko obra kontratua.
2. Erakunde kontratatzailea eta kontratatzailearen profila	<p>GOIERRIKO EKIMENA, S.A. (aurrerantzean “GOIEKI” edo “erakunde kontratatzailea”); ondorio hauetarako helbidea: Mallutz Industrialdea, 18. pab., 20240, Ordizia (Gipuzkoa).</p> <p>Harremanetarako pertsona: Iker Galparsoro (iker.goieki@goierri.org).</p> <p>Telefonoa: 943 16 09 70.</p> <p>Kontratatzailearen profila: www.goierri.eus.</p>
3. Kontratua prestatzeko eta esleitzeko aplikatu daitezkeen xedapenak eta prestatze eta esleipenean eskumena duen jurisdikzio ordena	<p>Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bategineko 191. artikulua, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua (“SPKLTB”) eta GOIEKIren Kontratuziorako Barne Jarraibideak (“KBJ”).</p> <p>Jurisdikzio zibila kontratua prestatzetik eta esleitzetik ondorioztatzen diren kontuak ebazteko.</p>
4. Kontratuaren xedea	<p>Kontratuaren xedea Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean enpresa inkubagailua izango den eraikinerako obrak egitea da.</p> <p>CPV:</p> <p>45213150-9 Bulego eraikinak eraikitze lanak.</p>
5. Egiteko gehienezko epea	12 HILABETE.
6. Kontratuaren luzapena	Ez.
7. Lizitazioaren gehienezko aurrekontua, kontratuaren balio zenbatetsia eta kontabilitateko epigrafea	<p>Lizitazioaren gehienezko aurrekontua, eta balio zenbatetsia, 3.328.029,86 EUROkoa da, BEZari dagokion 698.886,27EUROko kopuruaz gain, LKS INGENIERIAk erredaktatu duen eraikuntza proiektuaren aurrekontuan jasotzen den moduan.</p> <p>Segurtasun eta osasunari dagokion atalaren aurrekontua 35.957,26 eurokoa da. Kopuru hori ez da lizitazioaren gai, zenbateko finkoa da eta.</p> <p>Obra kontratatua ordaintzeko kontabilitateko epigrafea honakoa izango da: 230000 Egite-bideko ibilgetua.</p>

8.	Loteak	Ez.
9.	Kontratua loteka esleitzeko aukera	Ez, obraren ezaugarriak eta gauzatze uneko beharrak kontuan hartuta, ez dagokio kontratuaren xedea loteka zatitzea.
10.	Prozedura eta justifikazio mota, tramitatzeko modua eta prozedurari aplikatzeko arauak	Prozedura irekia. Izapidetze arrunta. KBJ.
11.	Ezaugarri Teknikoen Agiria eskuratzeko lekua eta kontratuaren xede den lekurako bisitan izateko aukera	GOIEKIren kontratatzailearen profila. www.goierri.eus Proiektu teknikoa eta bestelako dokumentazio osagarria erakunde kontratatzailearen helbidean egongo dira eskuragarri. Zalantzak argitzeko, erakunde kontratatzailearekin jarri behar harremanetan, 2. puntuan adierazitako lekuan.
12.	Behin-behineko bermea	Ez.
13.	Behin betiko bermea	Bai, zenbatekoaren % 5ekoa kontratua esleitzen den unean. Era berean eta osagarri gisa, egindako lanei buruzko hileko ziurtagiri bakoitzean % 5eko atxikipena egingo da; kopuru hori obraren urtebeteko berme aldia igaro ondoren itzuliko da, betiere kontratuan aurreikusiarekin bat.
14.	Eskaintzak aurkezteko azken eguna	2016ko urriaren 14, 14:00etan, GOIERRIKO EKIMENA, S.A.ren (GOIEKI) bulegoetan.
15.	Kaudimen tekniko eta ekonomiko-finantzarioa egiaztatzeko bitartekoak	Kaudimen teknikoa egiaztatzeko bitartekoak: 1. Kontratu honetarako eskatzen den sailkapena, HAKLEOren arabera honakoa: TALDEA: C AZPITALDEAK: 2 eta 4 KATEGORIAK: D eta/edo E Enpresa batzuk elkarrekin aurkezten direnean ABEE gisa, horien sailkapenak metatu egingo dira, kontratuei buruzko legedian xedatzen den moduan; horretarako ezinbestekoa izango da enpresa guztiek aurrez lortua izatea obrako enpresa gisako sailkapena. 2. Enpresa Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzeko agiria. ABEE gisa aurkezten diren enpresarien kasuan, kide guztiek aurkeztu beharko dute egiaztagiri hori.

	<p>Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeko bitartekoak:</p> <p>1. Enpresa lizitatzailleek modu frogagarriaz justifikatu beharko dute egunean daudela Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betekizunetan.</p>
<p>16. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa (B GUTUN-AZALA)</p>	<p>Ondoko dokumentazio teknikoa aurkeztuko da, adierazten den ordenari jarraikiz:</p> <p>1. Obrak ingurumenaren iraunkortasun eta errespetua ahalbidetzen duen moduan egitea, Garapen Iraunkorrari buruzko Gidetan jasotako ahalik eta neurri kopuru handiena aplikatuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ URBANIZAZIO PROIEKTUEN GARAPEN IRAUNKORRERAKO GIDA aplikatuz atera den dokumentua, emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo ezin diren neurrien justifikazioa. <p>Aplikazioa SPRILUR, S.A.ren web orritik (www.sprilur.es) eskura daiteke, “<i>PUBLICACIONES</i>” erlaitzean.</p> <p><u>*Lizitatzailleak jarraitu egin beharko ditu lizitazio honi dagokion Ezaugarri Teknikoen Agiriari erantsitako “Gida aplikatzeko metodologia eranskina” deituan jasotzen diren jarraibideak.</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ INGURUMENAREN ALDETIK IRAUNKORRA DEN ERAIKUNTZARAKO GIDA (BULEGO ERAIKINA) delakotik atera den dokumentua. <p>Gida hori ere SPRILUR, S.A.ren web orrian (www.sprilur.es) eskura daiteke, “<i>PUBLICACIONES</i>” erlaitzean. Lizitatzailleak “ERAS” aplikazioa jaitsi beharko du.</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Obrako Ingurumen Kudeaketa Planaren aurrerapena, ingurumen alderdien ebaluazioarekin (gehienez ere bi folio alde batetik). ➤ Hondakin Kudeaketako Planaren aurrerapena (gehienez ere bi folio alde batetik): <p>Aurrerapen horretan, obrako hondakinak kudeatzeko baimenduta dauden kudeatzaileen zerrenda adierazi beharko da, hondakinaren kudeaketaren printzipioak eta araudi aplikagarria kontuan harturik, batez ere eraikuntza- eta eraipen-hondakinaren ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua eta hondakinak hondakindegietan biltegitatuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretua.</p> <p>Giden aplikazioaren inguruko zalantzak kudeatzeko, Aurkene Niñorekin (Sprilur S.A.) jarri harremanetan, 944236118 telefonoan.</p> <p>2. Giza baliabideen zerrenda eta lantaldea, dagokion titulazio akademikoaz.</p> <p>Modu iraunkorren eta aldi baterako obrari atxikiko zaion</p>

pertsonalaren zerrenda nominala, izendatzen den ordezkariaren, obra-buruaren, produkzio-buruaren, Kalitate eta Ingurumen, Plangintza, eta Segurtasun eta Osasuneko arduradunen eta arduradun orokorren curriculumarekin batera (gehienez folio bat pertsonako).

Edonola ere, lizitatuzaileei eskatuko zaie obra-buru bat atxikitzea obrari, behar besteko titulazioa eta antzeko obretan gutxienez 5 urteko esperientzia duen bat.

3. Obrak egiteko jarri beharko dituen bitarteko materialen zerrenda, propioak eta azpikontratatuak zein diren zehazturik (gehienez ere 3 folio).

Lizitatuzaileak egiaztatu beharko du, bai bere bitartekoz bai hirugarrenen bidez, behar besteko bitarteko osagarri eta makineria duela obrak oso-osorik egin ahal izateko.

4. Azalpen memoria obrak egiteko moduari buruz, eta lanak egiteko Obrako programa, GANT Diagrama monetarizatuaren bidez (proiektuko prezioak harturik oinarri, C gutun-azalean jasoko den beherapen koefizientea gabe); horretan, obrako azterketa tekniko oinarri harturik, eta eskainitako bitarteko materialekiko eta giza baliabideekiko koherentziaz, dokumentu eta arrazoi bidez justifikatuko da eskainitako epeen bideragarritasuna bermatzeko beharrezko jarduera-sekuentzia, jarduera bakoitzaren iraupena eta esleitzen zaizkion bitarteko material eta giza baliabideak zehazturik. Kronogramak kontratu eraginak izango ditu, epeari dagokionez. **GANT Diagrama horren irakurketatik ezingo da, inoiz, lizitatuzailearen proposamen ekonomikoa deduzitu.**

Obrako programak ASTEA hartu behar du unitate.

Lan programa garatzeko teknikak modua eman beharko du aldaketa kritikoak eta lasaierak agerian jartzeko zein amaierako epeen gaineko kontrol mailakaturako epe partzial adierazgarriak zehazteko.

Diagrama eta grafikoez aukera emango dute eraikuntza-prozesuaren espazio eta denbora aldetiko antolaketa eta koordinazioa ikusteko.

Laneko programa jarduerak xehatuko da, aurrekontuko kapituluak eta azpikapituluak bereiziz, epea betetzeko erabakigarriak izan daitezkeen obrako unitateekin batera.

Plangintzako jarduera bakoitzean, datu hauek adieraziko dira:

- (a) Neurketa.
- (b) Hasiera eta amaiera datak.

Lan guztiak aurreikusitako epeetan egiteko erabiliko diren bitarteko materialak eta giza baliabideak zehaztuko dira.

Era berean, mugarri partzialak markatuko dira, horiek ahalbidetuko baitute obraren programazioari dagokionez proiektuan ezarritako kontratu konpromisoak betetzen diren egiaztatzea.

	<p>Dokumentu bakar batean eman beharko da, A2 neurrian, eta ASTEA harturik unitate.</p> <p>Proposatzen den laneko programaren koherentziaz gain, aurreikusitako gehienezko epearen murrizketa baloratuko da; lizitatuzaileak proposatzen duen epeak kontratu maila izango du alderdien artean.</p> <p>Afekzio, behin-behineko desbideratze, zerbitzu birjartze eta obra egiteko beharrezko seinalezatze eta segurtasun neurriei dagokienez, gehienez ere 3 folio -alde batetik- hartzen dituen txosten bat egin beharko da</p> <p>Azalpen Memoriari dagokionez, obrak egiteko moduari buruzko azalpenaren argitasuna baloratuko da, proposatzen den Obrako Programarekiko koherentziarekin eta kapituluetakako bakoitzean proposatzen diren baliabide material eta giza bitartekoaren atxikipenarekin batera (gehienez ere 6 folio, alde batetik).</p> <p>Obrako programaren eta lizitatuzaileak eskaintzen duen epearen arteko deskoordinazioaren bat ikusiz gero, eskaintza atzera bota ahal izango da.</p> <p>5. Proiektuaren analisi kritikoa, detektatu diren era guztietako akats edo hutsuneak adierazita, horien artean lehentasuna emanez obraren azken kostuari eragiten diotenei (gehienez ere 2 folio, alde batetik).</p> <p>Dokumentazioa aipatu ordenan aurkeztu beharko da, paperean koadernatuta eta CD formatuan halaber (Word, PDF edo antzeko formatu batean).</p>
<p>17. Formula bidez kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa (C GUTUN-AZALA)</p>	<p><u>Proposamen ekonomikorako eta epe proposamenerako eredua (Baldintza Administratibo Partikularren Agiriko VI. eranskina).</u></p> <p>Eskaintza bat ezohiko edo neurrigabetzat kalifikatzeko, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan aurreikusitaren arabera jokatu da. Eskaintza bat ezohiko edo neurrigabetzat joz gero, SPKLTBn aurreikusten diren ondorioak izango dira.</p>
<p>18. Garrantzi handienekotik txikienerako ordenari jarraikiz esleitzeko irizpideak, horien haztapena eta ebaluatzeko modua.</p>	<p>(A) Formulak aplikatuz ebalua daitezkeen irizpideak: (70 puntu)</p> <p>Proposamen ekonomikoa: eskaintza ekonomikoa baloratuko da, gehienez ere 70 puntu emanez, ondoko formula matematikoaren arabera:</p> $B = 70 \times \left[1 - \frac{(Y-X)}{X} \right]$ <p>Horretan: B = proposamenak lortutako balioa X = onartuen arteko proposamen baxuena Y = lizitatuzailearen proposamena</p>

	<p>Eskaintza bat ezohiko edo neurrigabetzat joz gero, SPKLTBn aurreikusten diren ondorioak izango dira.</p> <p>Obrak ingurumenaren iraunkortasun eta errespetua ahalbidetzen duen moduan egitea, Garapen Iraunkorrari buruzko Gidetan jasotako ahalik eta neurri kopuru handiena aplikatuta (6 puntu)</p> <ul style="list-style-type: none">- Giden aplikazioaren ondoriozko dokumentuak ematea, neurri aplikatuen eta ez aplikatuen gaineko azalpen egokia, neurrien aplikazioaren uneko zorrotasun handiena, eta xehetasun maila handiena aurkeztutako justifikazioan (3 puntu gehienez).- Obrako Ingurumena Kudeatzeko Planaren Aurrerapena eta Hondakinak Kudeatzeko Planaren Aurrerapena; osoen eta zorrotzen dena eta ondoen justifikatzen dena baloratuko da (3 puntu gehienez). <p>2. Giza baliabideen zerrenda eta lantaldea, dagokion titulazio akademikoaz (3 puntu)</p> <ul style="list-style-type: none">- Obrari atxikiriko pertsonalaren organigrama onen eta osoena baloratuko da, obrarako dedikazio konpromiso handienekoa eta antzeko obretan esperientzia handien eta egokiena duen lantaldea (3 puntu gehienez). <p>3. Obrak egiteko jarriko dituen bitarteko materialen zerrenda, propioak eta azpikontratatuak zein diren zehazturik (3 puntu gehienez).</p> <p>Bitarteko ekarpena eta proiektuan deskribatzen diren obraren beharretarako egokitzapen handiena baloratuko dira.</p> <p>4. Azalpen Memoria eta Obrako Programa, GANT diagrama monetarizatuaren bidez lanak gauzatzeko, 16. puntuak jasoaren arabera (11 puntu).</p> <ul style="list-style-type: none">- A-2 dokumentua ematea, 16.4 apartatuan definitutako zehaztapenekin (gehienez 3 puntu); horretan zorrotasun, zehaztasun eta justifikazio maila handienak baloratuko dira.- Azalpen zuzen eta aztertua, ekipoak eta errendimenduak deskribatzen dituena, hasiera eta amaiera datak adierazita, bide kritikoa finkatuta eta proiektuaren gaineko ezagutza sakona erakusten duena (3 puntu gehienez).- Memoriari dagokionez, konponketa-obrak egiteko moduari buruzko azalpenaren argitasuna baloratuko da, proposatzen den Obrako Programarekiko koherentziarekin eta kapituluetako bakoitzean proposatzen diren baliabide material eta giza bitartekoen atxikipenarekin batera (gehienez 5 puntu). <p>5 Proiektuaren analisi kritikoa (7 puntu), karatularen 16.5 apartatuaren arabera. Proiektuaren eta izan ditzakeen hobekuntzen</p>
--	--

	gaineko analisiko zorrotasuna baloratuko da.
19. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa (B gutun-azala) jendaurrean zabaltzeko ekitaldiaren lekua, eguna eta ordua	GOIEKIREn bulegoak, karatula honetako 2. puntuari adieraziak. Ekitaldiaren eguna eta ordua lizitatuzaileei emango zaie aditzera lizitatuzaileek beren proposamenetan jakinarazpen ondorioetarako emandako helbide elektronikoetan, eta kontratatuzailearen profilean ere argitaratuko dira.
20. Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa (C gutun-azala) jendaurrean zabaltzeko ekitaldiaren lekua, eguna eta ordua	GOIEKIREn bulegoak, karatula honetako 2. puntuari adieraziak. Eguna eta ordua lizitatuzaileei emango zaie aditzera lizitatuzaileek beren proposamenetan jakinarazpen ondorioetarako emandako helbide elektronikoetan, eta kontratatuzailearen profilean ere argitaratuko dira.
21. Uko egiteagatiko edo atzera egiteagatiko konpentsazioa	Bai, 100 euro.
22. Prezioen berrikuspena	Ez.
23. Publizitate gastuak eta zenbatekoa	Ez dago.
24. Iragarkia EBAOra bidaltzeko data	Ez dagokio.
25. Eskaintza mantentzeko epea	Lizitatuzaileek bere eskaintza 9 hilabeteko epean mantendu beharko dute, aurkezten dutenetik aurrera.
26. Bestelako argibideak	GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOAK kontratistari ordainduko dio lizitazio honen gai den enpresa inkubagailurako eraikinaren beheko solairuan lantegiak eta laborategiak eraikitzeari dagokion zenbatekoa, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren mendeko Teknologia Transferentzia eta Enpresa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak 2011ko urriaren 17ko ebazpenaren indarrez horretarako emandako 1.000.000 euroko diru laguntzaren kargura. Diru laguntza emateko baldintzak jasotzen dituen ebazpena baldintza-agiri honen eranskin gisa doa. <u>II.ERANSKINA</u>

ESKAINITZA EKONOMIKOAREN TAULA-ERANSKINA.

(A) KEA/proiektua	(B) KEA eskainia	(B)/(A) emaitzazko koefizientea
3.292.072,60€		
GS zenbateko finkoa	GS zenbateko finkoa	
35.957,26€	35.957,26€	
GUZTIRA	GUZTIRA	
3.328.029,86€		

Horiz dauden laukiak bete.

*** Egin beharreko lanen gaineko kalitate kontrolari dagokionez:**

Kalitate probak GOIEKIk kontratatuko ditu, eta proben eta saiakuntzen kostua esleipendunaren kontura izango da, zenbateko finko batez, hau da, obra ziurtatua Kontrata bidez Egiteko Aurrekontuaren zenbateko osoaren % 1eko batez. Ondorioz, portzentaje hori segidako ziurtagiri partzialetatik deskontatuko da (berme kontzeptuko % 10eko atxikipenari gehiturik - karatula honetako 13. puntua); Obra Zuzendaritzak adierazirik Jabetzak kontratatzen duen Kalitate Kontrolerako Kabineteak egiten dituen probak eta saiakuntzak ordaintzeko erabiliko da portzentaje hori. Azken kostuak adierazitako % 1eko hori gainditzen badu, aldean ordainketa Jabetzaren kontura izango da.

**ORDIZIAKO GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEAN ENPRESA INKUBAGAILUA
HARTZEKO ERAIKINA EGITEKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ
ESLEITZEARREN GOIERRIKO EKIMENA, S.A.K (GOIEKI) DEITU DUEN
LEHIAKETA ARAUTZEKO KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN
AGIRIA**

AURKIBIDEA

1. XEDAPEN OROKORRAK	11
1.1. Erakunde kontratatzailea	11
1.2. Kontratuaren araubide juridikoa	11
1.3. Kontratuaren xedea.....	11
1.4. Kontratuaren iraupena.....	11
1.5. Kontratuaren prezioa eta balio zenbatetsia	11
1.6. Loteka banatzea	11
1.7. Ezaugarri teknikoak	11
2. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK.....	12
2.1. Kontratua gauzatzeko baldintzak.....	12
2.2. Kontratua aldatzea.....	12
3. LIZITAZIORAKO BALDINTZA BEREZIAK.....	12
3.1. Esleitzeko eta tramitatzeko modua.....	12
3.2. Lehiaketako dokumentazioa eta informazioa.....	12
3.3. Bermeak.....	12
3.3.1. Behin-behinekoa.....	12
3.3.2. Behin betikoa.....	13
3.4. Eskaintzak aurkeztea.....	14
3.4.1. Lekua eta epea.....	14
3.4.2. Proposamenei buruzko argitze oharrak.....	14
3.4.3. Baztertzeko arrazoiak.....	14
3.5. Proposamenen edukia.....	15
3.5.1. (A) gutun-azala: Dokumentazio administratiboa:.....	15
3.5.2. (B) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa:	18
3.5.3. (C) gutun-azala: Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa:	19
3.6. Eskaintzak baloratzeko irizpideak.....	18
3.7. Ebaluazio Batzordearen osaketa eta eskaintzen balorazioa.....	18
3.7.1. Ebaluazio Batzordea.....	18
3.7.2. Batzordeak proposamenak irekitzeari dagozkion jarduketak.....	19
3.8. Eskaintzak sailkatzea eta uko egitea.....	20
3.9. Kontratuaren esleipena.....	21
4. KONTRATUA FORMALIZATZEA.....	21
5. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK.....	22
5.1. Jakinarazpenak.....	22
5.2. Prezioen berrikuspena.....	22
5.3. Epeak.....	22
5.4. Publizitate gastuak.....	22
I. ERANSKINA.....	23
II. ERANSKINA.....	24
III. ERANSKINA	26
IV. ERANSKINA.....	27
V. ERANSKINA	29
VI. ERANSKINA.....	29

1. XEDAPEN OROKORRAK

1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (aurrerantzean “**erakunde kontratatzailea**”) baldintza-agiri honetan buru den karatularen **2. puntuan** adierazia da; horren datuak, helbidea eta telefonoa puntu horrextan adierazten dira halaber.

2. Kontratuaren araubide juridikoa

Lizitazio honen xede den kontratua izaera pribatukoa da. Prestakuntzari eta esleipenari dagokienez, klausula administratibo hauek eta karatularen **3. puntuan** adierazten diren xedapenek arautuko dute. Eta izango dituen ondorioei eta iraungipenari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateginaren (SPKLTB) I. liburuko V. tituluko arauak, kontratuak aldatzeari buruzkoak, aplikatu beharko dira.

Kontratuaren prestakuntza eta esleipenaren inguruan alderdien artean sortzen diren eztabaidak erabakitzeke eskumena karatularen **3. puntuan** adierazten den jurisdikzio ordenari dagokio.

Kontratuaren xedea

Baldintza-agiri honetan aipatzen den kontratuaren xedea karatularen **4. puntuan** zehazten dena da.

3. Kontratuaren iraupena

Gehienezko iraupen epea, kontratua gauzatzekoa edo ondasunak ematekoa karatularen **5. puntuan** finkatua izango da, edo esleipendunak bere eskaintzan adierazitako epe laburragoa.

Karatularen **6. puntuan** aurreikusten bada, kontratua luzatu ahal izango da, prestazioak hasierakoaz gaineko beste denbora epe batean zehar ematen segitu ahal izatearren.

4. Kontratuaren prezioa eta balio zenbatetsia

Gehienezko lizitazio aurrekontua karatularen **7. puntuan** jasoa da, eta puntu berean adierazten da kontratuaren balio zenbatetsia ere.

5. Loteka banatzea

Kontratua loteka banatuko da karatularen **8. puntuan** horrela adierazten bada. Lote horiek era independentean esleitu ahal izango dira, karatularen **9. puntuak** baimentzen duen kasuetan.

6. Ezaugarri teknikoak

Kontratuaren xede den prestazioa baldintza-agiri honetan eta era berean kontratuaren parte den **I. eranskin** gisa doan ezaugarri teknikoenean jasotzen diren baldintzetara egokituko da.

2. ESLEIPENDUNAREN BETEKIZUNAK

1. Kontratua gauzatzeko baldintzak

Esleipendunaren betekizunak **II. eranskin** gisa eransten den ereduari jarraikiz egingo den kontratutik ateratzen direnak izango dira.

2. Kontratua aldatzea

Erakunde kontratatzaileak kontratua aldatu ahal izango du:

- (i) SPKLTBren 105. artikuluan ezarritako arrazoiengatik.

- (ii) SPKLTBren 106. artikulua ezartzen duenarekin bat, erakunde kontratatzaileak aldatu ahal izango du kontratua, baldintza-agiri honetako **II. eranskinean** aurreikusitako baldintzetan eta ondorioekin.

Aurreko apartatuetan adierazitako arrazoiengatik erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat; honek ez du horiengatik inolako kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango, nahiz aldaketek kontratuaren xede diren prestazioetako batzuk kentzea edo murriztea eragin.

3. **LIZITAZIORAKO BALDINTZA BEREZIAK**

1. **Esleitzeko eta tramitatzeko modua**

Kontratu honen esleipena karatularen **10. puntuan** adierazitako prozedura eta moduari jarraikiz egingo da, eta karatularen puntu berean aipatzen diren arauen arabera betiere.

2. **Lehiaketako dokumentazioa eta informazioa**

Pertsona interesdunek baldintza-agiriak, kontratua eta bestelako dokumentazio garrantzitsua aztertu ahal izango dute karatularen **11. puntuan** adierazten den lekuan, eta dokumentazioaren kopiak ere eskuratu ahal izango dituzte bertan. Dokumentazioari eta lehiaketako bestelako baldintzei buruzko zalantzak erakunde kontratatzaileak erabakiko ditu.

Karatularen puntu horretan jasoko da, hala badagokio, kontratua gauzatzeko lekua bisitatzeko aukera.

Erakunde kontratatzaileak enpresa lizitatuzaileen eskura jartzen dituen dokumentu hauen helburu bakar eta eskusiboa lehiaketaren xede diren eskaintzak prestatzea da. Horregatik enpresa lizitatuzaileek eta hauen laguntzaileek konpromisoa hartzen dute dokumentuak eta bertan jasotzen den informazioa beste inolako helburutarako ez erabiltzeko.

3. **Bermeak**

i. **Behin-behinekoa**

Karatularen **12. puntuak** aurreikusten badu, lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza izango da enpresa lizitatuzaileek behin-behineko bermea aurkeztea, karatulan zehazten den lizitazio aurrekontuaren zenbatekoaz; horrelakoetan, karatularen apartatu horrexetan justifikatuko da berme eskakizunaren behar zehatza.

Enpresa lizitatuzaileek dirutan jarri ahal izango dute bermea, edo zor publikoko baliotan, abal bidez edo kauzio aseguratuko kontratu bidez. Abala eta kauzio aseguruia **III. eranskin** gisa doan ereduari egokituko zaizkio.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era dezakete behin-behineko bermea, baina denen artean baldintza-agiri honetan eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute eta elkartea osatzen duten guztiak izanik solidario bermean.

Behin-behineko berme hori kontratua esleitu eta berehala itzuliko zaie esleipendun ateratzen ez diren enpresa lizitatuzaileei Nolanahi ere, esleipena egiteko aukeratutako eskaintza aurkeztu duen lizitatuzaileari atxiki egingo zaio bermea, behin betiko bermea eratzen duen arte.

Enpresa lizitatuzaileek eraturako behin-behineko bermea gauzatu egingo da, kontratua esleitu baino lehen beren eskaintza justifikaziorik gabe kentzen badute, edo esleipendun izateko aukeratutako lizitatuzaileak aurkezten ez duenean baldintza-agiri honetako 3.8 klausularekin bat erakunde kontratatzaileak eskatutako

dokumentazioa, edo berari egozteko moduko arrazoiak direla eta kontratua formalizatzen ez badu.

ii. Behin betikoa

Karitularen **13. puntuak** horrela aurreikusten badu, eskaintza ekonomiko abantailatsuen aurkeztu duen enpresak hamar egun balioduneko epea izango du (edo bostekoa premiazko tramitazioaren kasuan), erakunde kontratatzailearen errekerimendua jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita, karitularen zehazten den kontratua esleitzeko prezioaren zenbatekoaz edo horren portzentaje batez behin betiko bermea eratzeko eta erakunde kontratatzaileari aurkezteko; 13. puntuaren ezarritako gero behin betiko bermea ziurtagirien ordainketako atxikipen partzial gisakoa izango dela, ez da behin betiko berme hori eratu beharrik izango.

Betekizun hau bete ezean eskaintza ekonomiko abantailatsuen aurkeztu duen enpresari egozteko moduko arrazoiengatik, erakunde kontratatzaileak ez du haren aldeko esleipenik egingo, eta baldintza-agiri honetako 3.8 klausularen azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da orduan.

Behin betiko bermeak erantzun egingo du (i) esleipendunak kontratuko betekizunak berandu edo oker betetzen dituzenean, (ii) esleipendunak kontratua bete ez eta kontratuan bertan horrelakoetarako aurreikusten diren zigorrak ezarri behar direnean, eta (iii) kontratuan aurreikusten den berme epean zehar hornitutako ondasunetan, egindako lanetan edota emandako zerbitzuetan akatsak daudenean.

4. Eskaintzak aurkeztea

i. Lekua eta epea

Enpresa lizitatzailerak erakunde kontratatzailearen bulegoetan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, astelehenetik ostegunera 09:00etatik 13:00ak bitarteko ordutegia eta ostiraletan 9:00etatik 14:00arte, eta aurkezpenerako epea karitularen **14. puntuaren** adierazten diren data eta orduan amaituko da.

Dokumentazioa postaz bidaltzen denean, enpresa lizitatzailerak justifikatu egin behar du bidalketa posta-bulegoan ezarri den data, eta erakunde kontratatzaileari iragarri behar dio, egun berean bidalitako mezu elektronikoa, fax edo telegrama baten bidez, eskaintza igorri duela. Baldintza hori betetzen ez denean, erakunde kontratatzaileak ez du dokumentazioa onartuko, eskaintzak aurkezteko finkatutako epea amaitzen den data eta ordua igaro ondoren jasotzen badu.

Hala eta guztiz ere, esandako eguna iritsi ondoren hamar egun igarotzen badira dokumentazioa jaso gabe, berari ez da inolaz ere onartuko.

ii. Proposamenei buruzko argitze oharrak

Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatzailerak ezingo du kendu, behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoirik izan ezean.

Lizitatzailerak eskaintza mantendu behar du, karitularen **25. puntuaren** adierazitako epean zehar, eskaintzak aurkezteko ezarritako epea amaitzen denetik kontaktzen hasita.

Enpresa lizitatzailerak bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Halaber, ezingo du beste batzuekin batera aldi baterako elkarte eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan egon ere. Apartatu honetan aurreikusitako urratuz gero, enpresak izenpetutako eskaintza guztiak lizitaziotik kanpo utziko dira.

Ez da onartuko eskaintza aztertze beharrezko jotzen diren alderdiak argi eta garbi ezagutzea eragozten duten kontraesanak, gabeziak, akatsak edo zirriborroak dauzkan proposamenik.

Dokumentazio eskatua notario-dokumentazioa denean, enpresa lizitzaileek Notariotza Legeak eta Erregelamenduak ezartzen dituzten legeztapen eta legitimazio baldintzei jarraikiz aurkeztu beharko dute hori. Dokumentu administratiboen kasuan, originalak edo behar bezala kautotutako kopiak edo fotokopiak aurkeztu ahal izango dira.

Proposamena aurkeztuz gero, lizitzaileak goitik behera onartzen ditu, eragozpenik jartzeke, baldintza-agiri honetan jasotzen diren aurreikuspenak.

iii. Baztertze arrazoiak

Lehiaketatik kanpo geratzeko arrazoiak ondokoak izango dira, betiere erakunde kontratatzaileak arrazoi bidez justifikaturik:

- (i) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- (ii) Baldintza-agiri honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala ez egiaztatzea.
- (iii) Proposamen ekonomiko bat baino gehiago aurkeztea, bai bakarka bai beste enpresa lizitzaile batzuekiko aldi baterako elkarte gisa.
- (iv) Ezaugarri teknikoak edo gehienezko lizitazio tipoa ez betetzea.
- (v) Gutun-azal batean beste gutun-azal batean aurkeztu beharreko dokumentazioa sartzea.
- (vi) Baldintza-agiri honetan edo ezaugarri teknikoenean ezarritako baldintzak ez betetzea edo (B) edo (C) gutun-azaletan ez sartzea eskatutako dokumentazioa.

Proposamen baztertuak dagokion aktan jasoko dira, edo eginbidez, baztertze hori eragin zuten arrazoiak emanda.

5. Proposamenen edukia

Aurkezten diren proposamenek, printzipioz, hiru gutun-azal itxi edukiko dituzte -laktatuta eta prezintatuta aurkez daitezke-; horiek lizitzailearen edo berau ordezkatzeko duen pertsonaren sinadura eramango dute, eta bakoitzeko datuak honakoak izango dira:

- (i) Lehiaketaren izena eta gutun-azalak daraman edukia;
- (ii) Lizitzailearen eta ordezkari duen pertsonaren izena;
- (iii) Jakinarazpen ondorioetarako helbidea, xede bererako posta elektronikoko helbide batekin batera; eta
- (iv) Telefono eta fax zenbakiak.

i. (A) gutun-azala: Dokumentazio administratiboa:

(A) gutun-azalak aipamen hau eramango du:

*“ORDIZIAKO GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEAN ENPRESA INKUBAGAILUA
IZANGO DEN ERAIKINA EGITEKO OBRETARAKO KONTRATUA*

A GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA.

LIZITATZAILEA: [...]”.

Ondoko dokumentazioa sartuko da, bai originala bai indarreko legediaren araberako kopia kautotua, edo notarioak egiaztatutako originalaren fotokopia edo kopia kautotua:

(i) Lehiatzeko ahalmena: (kontratataren sailkapena aurkeztu ez duten lizitatzaielen kasuan).

(a) Lizitatzaiela pertsona juridikoa bada, horren eraketa-eskritura erantsiko da, izan dituen aldatetekin batera horrelakorik izan bada, Merkataritza Erregistroko inskripzioaz, baldintza hau eska daitekeenean aplikagarri zaion merkataritzako legediarekin bat.

Pertsona juridikoa ez bada, dagokion erregistro ofizialean inskribaturiko eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo sorrera-agiria, jarduera erregulatzen duten arauak jasota ageri dituen.

Europar Batasuneko kide diren estatuetako enpresari ez espainiarrak direnean, erregistro profesional edo komertzial batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, erregistro hori eskatzen duenean kasuan kasuko estatuko legediak.

Atzerriko gainerako enpresariak, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeke, kasuan kasuko estatuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrek emandako txostena aurkeztuko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletzeko Bulegoaren txostena.

(b) Banakako enpresaria bada, lizitatzaielen ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztuko du (NANa espainiarren kasuan, eta pasaporte edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizial atzerritarren kasuan).

(ii) Ahalordeak: (kontratataren sailkapena aurkeztu ez duten lizitatzaielen kasuan).

Lizitatzaielen ordezkariaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia erantsiko da (NANa espainiarren kasuan, eta pasaporte edo nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu ofizial atzerritarren kasuan) eta, gainera, beraren aldeko behar besteko ahalordea, hala dagokionean Merkataritza Erregistroan inskribatua, ordezkatuaren izenean kontratuak harpidetzeko ahalbidetzen duena.

(iii) Lehiatzeko eragozpenik ez izateari buruzko adierazpen egiaztatzaileak:

SPKLTBren 146.1 c) artikulua aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpena, horren bidez adieraztearren lizitatzaielari ez diola eragiten lege horretako 60.1 artikuluan jasotzen diren administrazio publikoekin kontratatzea galarazteko arrazoi bategi berak ere, **V. eranskin** gisa doan ereduarekin bat.

Aurreko paragrafoak aipatzen duen erantzukizunpeko adierazpen horretan berariaz jasoko da lizitatzaiela egunean dagoela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak; nolahi ere, gerora, eta SPKLren 146.1 c) artikulua dioenarekin bat, baldintza hori betetzeari buruzko frogagiria esleipenaren aurretik aurkeztu beharko du esleipena egokitu zaion enpresariak.

(iv) Behin-behineko bermea:

Karatularen **12. puntuak** horrela xedatzen duela-eta berme hau eskatzen den kasuan, behin-behineko bermea eratu dela egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztuko da.

(v) Kaudimen tekniko eta ekonomiko finantzarioa. Lizitatzailerek beren kaudimen tekniko eta ekonomiko finantzarioa egiaztatu beharko dute, karatularen **15. puntuari** adierazten den moduan.

(vi) Aldi baterako enpresa-elkarteak:

Enpresa batzuk aldi baterako elkarte gisa aurkezten direnean lizitazioan, eta karatulan besterik xedatu edo sailkapena eskatu ezean (horrelakoetan, izan ere, SPKLren metaketa araubidera joko baita), elkarteak osatzen duten enpresarietako bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko klausulek ezartzen dutenaren arabera. Gainera, horrelako kasuetan dokumentu bat igorriko da, etorkizuneko aldi baterako enpresa-elkarteko kideen ordezkarietako bakoitzak izenpetua, honakoak adierazirik bertan:

- (a) Elkarteko enpresari bakoitzaren izena eta zertzeladak.
- (b) Horietako bakoitzak elkartean duen partaidetza.
- (c) Kontratuaren indarraldian zehar jabetzaren aurrean enpresari guztien erabateko ordezkarietza eramango duen eta erakunde kontratatzailearen aurrean solidarioki obligatuko den pertsona edo erakundea.

Lizitazioa aldi baterako enpresa-elkarteari esleitzen zaionean, enpresek egiaztatu egin beharko dute, erakunde kontratatzailearen aurrean, elkartearen eskritura publiko bidez eratu dela.

(vii) Atzerriko enpresen jurisdikzioa:

Atzerriko enpresariak adierazpen bat aurkeztu beharko dute, horretan jasoz Bilboko epaitegi, auzitegi eta arbitraje auzitegiaren jurisdikzioaren pean geratuko direla, modu eskusiboan, zuzenean edo zeharka kontratutik ondoriozta daitezkeen gorabehera guztietarako, eta uko egiten diotela, hala dagokionean, lizitatzailari dagokion atzerriko jurisdikzioari.

OHARRA: Lizitatzaila eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean behar den Talde, Azpitalde eta Epigrafean inskribatuta egotearen ondorioz Kontratista Sailkapena behar bezala aurkeztu duten lizitatzailak salbuetsita daude i (Lehiatzeko ahalmena), ii (Ahalordeak) eta v (Kaudimen tekniko eta ekonomiko finantzarioa) epigrafeetan jasotzen den dokumentazioa aurkeztetik, sailkapen horrek berez egiaztatzen baitu aipatutako dokumentazioa badela eta indarrean dagoela.

ii. (B) gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa:

(B) gutun-azalak aipamen hau eramango du:

*“ORDIZIAKO GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEAN ENPRESA INKUBAGAILUA
IZANGO DEN ERAIKINA EGITEKO OBRETARAKO KONTRATUA*

B GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

LIZITATZAILEA: [...]”.

(B) gutun-azalean karatularen **16. puntu** zehazten den dokumentazioa jaso beharko da.

Gutun-azal honetan ez da inolaz ere sartu behar ez eskaintza ekonomikoa ez formula bidez kuantifika daitekeen beste inolako dokumentaziorik.

iii. C gutun-azala: Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa:

(C) gutun-azalak aipamen hau eramango du:

*“ORDIZIAKO GOIERRI BERRIKUNTZA GUNEAN ENPRESA INKUBAGAILUA
IZANGO DEN ERAIKINA EGITEKO OBRETARAKO KONTRATUA*

*C GUTUN-AZALA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI
BURUZKO DOKUMENTAZIOA.*

LIZITATZAILEA: [...]”.

(C) gutun-azalak dokumentu hauek edukiko ditu.

- (i) Proposamen ekonomikoa, lizitatzailerak edo hau ordezkatzeko duen pertsonak sinatua, baldintza-agiri honetako VI. eranskin gisa doan ereduaren arabera, karatularen **17. puntu** adierazten den moduan.
- (ii) Formula bidez kuantifikatzeko irizpideak baloratzearen karatularen puntu berean zerrendatutako beste edozein dokumentu.

6. Eskaintzak baloratzeko irizpideak

Eskaintzak baloratzeko unean karatularen **18. puntu** ezarritako irizpideak hartuko dira oinarri. Puntu berean horrela adierazten denean, lizitatzailerak gutxienezko puntuazio atalase batera iristea eskatu ahal izango zaie, onartuak izateko eta hautaketa prozesuan jarraitu ahal izateko.

7. Ebaluazio Batzordearen osaketa eta eskaintzen balorazioa

i. Ebaluazio Batzordea

- (i) Osaketa: Ebaluazio Batzordeko kideak GOIEKIren presidentea, beste bost batzordekide eta idazkaria izango dira.

Dena den, batzordekide kopurua handitu ahal izango da, erakunde kontratatzaileak izendatutako beste batzuekin, kontratuaren izaera dela-eta horrela egitea komeni denean.
- (ii) Eraketa: Batzordea balioz eratu ahal izateko, gutxienez bi kidek egon beharko dute bertan. Batzordearen deialdiak idazkariak egingo ditu, batzordeburuak agindurik, gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin.
- (iii) Erabakiak hartzea: Batzordearen erabakiek bertaratuen gehiengo sinplea beharko dute. Berdinketa gertatuz gero, batzordeburuaren kalitate botoak erabakiko du.
- (iv) Batzordearentzako laguntza teknikoa: Batzordeak eskatu ahal izango du egiten diren bileretan teknikariak izatea, betiere horiek aholkularitza espezializatua emateko helburu bakarrekin.

ii. Batzordeak proposamenak irekitzeari dagozkion jarduketak

(i) (A) gutun-azalak irekitzea eta kalifikatzea

Batzordea aurreko apartatuan aurreikusitako moduan eratu ondoren, saio pribatuan eta (B) gutun-azala ireki aurretik aztertu eta kalifikatu egingo da (A) gutun-azalean dagoen dokumentazioa.

(A) gutun-azalak ireki ondoren Batzordeak ikusten badu horietako dokumentazioan badela akats edo hutsune konpongarririk, edo iritziz gero dokumentazioaren gaineko azalpenen bat behar dela, 3 egun balioduneko epea emango du, akats edo hutsune horiek egin dituzten lizitatuzaileek beharrezko zuzenketa edo konponketa egin edo azalpenak eman ditzaten. Dena den, mamizko akats edo gabezia materialak dauzkan lizitaziorik ez da onartuko.

Akta egin eta egindako guztia erasota lagako da.

(ii) (B) gutun-azala irekitzea

(A) gutun-azala ireki eta, hala dagokionean, akatsak konpondu ondoren, Batzordea saio publikoan agertuko da, karatularen **19. puntuan** adierazten diren leku, egun eta orduan, hain zuzen honetarako:

- (a) Lizitatuzaileei aditzera emateko zer proposamen onartu diren eta, hala dagokionean, zer proposamen ez diren onartu, ez onartze horren arrazoiekin batera. Komunikazio horretaz gain, enpresa ez onartuen zerrenda erakunde kontratatzailearen profilean argitaratuko da, eta batera edo bestera jakinaraziko zaie enpresa ez onartuei.
- (b) (B) gutun-azala irekitzeko; horretarako, batzordeburuak gonbidatu egingo ditu ekitaldian diren lizitatuzaileak edo horien legezko ordezkariak, kasuan kasuko gutun-azalak aldatu gabe daudela egiazta dezaten.

Egoki irizten badio, Batzordeak erabaki ahal izango du (B) gutun-azalak kontratazioaren sustatzaile den sailari bidaltzea, (B) gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratzeko edo horretarako beharrezko irizten dien txostenak eta aholkularitza eskatzeko. Era berean, lizitatuzaileei beharrezko azalpenak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako dokumentuetako edozeini buruz.

Akta egin eta jardundako guztia erasota lagako da, (B) gutun-azaleko dokumentazioari buruz egiten den balorazioarekin batera.

(iii) (C) gutun-azala irekitzea

(B) gutun-azalak aztertu eta ebaluatu ondoren, saio publikoan eratuko da Batzordea, karatularen **20. puntuan** adierazitako leku, egun eta orduan; horren helburua honakoa izango da:

- (a) Lizitatuzaileei aditzera ematea (B) gutun-azalen balorazioaren emaitza eta, hala dagokionean, karatulan finkatutako gutxieneko atalera ez iristeagatik onartu ez diren eskaintzena.
- (b) (C) gutun-azala irekitzea eta irakurtzea; horretarako, batzordeburuak gonbidatu egingo ditu ekitaldian diren lizitatuzaileak edo horien legezko ordezkariak, kasuan kasuko gutun-azalak aldatu gabe daudela egiazta dezaten.

Akta egin eta egindako guztia erasota lagako da, ekitaldira bertaratu direnekin batera.

(iv) Esleipen proposamena

Batzordeak, aurkeztutako eskaintzak ikusirik eta aurrez eskatu dituela behin betiko baloraziorako behar dituen txostenak, txosten tekniko bat prestatuko du, aurkeztutako proposamenak goitik beherako ordenari jarraituz sailkatu, hurrengo apartatueta ezartzen diren esleipen irizpideen arabera.

8. Eskaintzak sailkatzea eta uko egitea

Erakunde kontratatzaileak edo horrek eskumena ematen dion/dien pertsonak/pertsonak, Batzordeak egindako txostena ikusirik, goitik beherako ordenari jarraituz eta karatulan jasotako esleipen irizpideekin bat sailkatuko ditu/dituzte proposamen aurkeztuak, neurritz kanpoko edo ezohiko jo ez direnak.

Erakunde kontratatzaileak kontratu egiteari uko egiten badio edo horretan atzera egiten badu, lizitatzaileak konpentsatu beharko ditu, karatulan **21. puntu** adierazten den kantitatea ordainduta.

Erakunde kontratatzaileak eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio honek errekerimendua jasotzen duenetik hamar egun baldioduneko epearen barnean (edo bostekoaren barnean premiazko tramitazioaren kasuan) aurkezteko eskatzen zaion dokumentazioa, edo bestela erakunde kontratatzaileari baimena eman diezaiola dokumentazioa eskura dezan; edonola ere, ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- (i) Zerga-betekizunetan egunean dagoelako ziurtagiri positiboa eta Gizarte Segurantzarekiko betekizunetan egunean dagoelako ziurtagiri positiboa.
- (ii) Enpresari-elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkartearen IFKrekin batera, forma horren pean lizitatu den kasuan.
- (iii) Behin betiko bermearen eraketa, IV. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, karatulan **13. puntu** horrela egitea xedatzen den kasuetan.
- (iv) **II. eranskin** gisa jasotzen diren kontraturako eskatutako aseguru polizak.
- (v) Kontratuaren indarrez eskatzen den dokumentazioa.
- (vi) Hala dagokionean, publizitate gastu guztiak ordaindu izanaren frogagiria, erakunde kontratatzaileak aurkeztzen dion likidazioaren arabera.
- (vii) Kontratua gauzatzera bideratzeko edo atxikitzeko konpromisoa hartutako bitartekoak benetan erabilgarri dituelako frogagiria, baldintza-agirietan horrela eskatu baldin bada.

Klausula honek jasotzen duen errekerimendua epe barruan eta behar bezala bete ezean, lizitatzaileak bere eskaintza kendu duela ulertuko da. Horrelakoetan, erakunde kontratatzaileak ahalmena izango du hurrengo lizitatzaileari dokumentazio bera eskatzeko, betiere eskaintzen sailkapeneko ordenari jarraikiz.

9. Kontratuaren esleipena

Aurreko klausulak aipatzen duen dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baldiodunetan (edo hiru egunetan premiazko tramitazioaren kasuan), eta esleipendunak aurkeztu baldin badu aipatutako dokumentazioa, erakunde kontratatzaileak kontratua esleituko du, non eta ez duen lehiaketa huts deklaritzen karatulan jasotzen diren esleipen irizpideen arabera onartzeko moduko inolako proposamenik aurkeztu ez den kasuetan.

Kontratua esleitzeko ebazpena arrazoitua izango da, eta erakunde kontratatzaileak daukan kontratatzailearen profilean argitaratu eta lizitatzaileri guztiei jakinarazi beharko zaie. Jakinarazpenak, edonola ere, jaso egin beharko ditu SPKLTBren 151.4 artikuluan aipatzen diren alderdi guztiak.

4. **KONTRATUA FORMALIZATZEA**

Kontratua **II. eranskin** gisa doan ereduarekin bat formalizatuko da. Lote bat baino gehiago badago eta denak kontratista berari esleitzen bazaizkio, erakunde kontratatzaileak beretzat gordeko du lote guztiak edo lote batzuk jaso kontratu bakarra harpidetzeko ahalmena.

Kontratua formalizatzeko, arau hauek jarraituko dira:

- (i) Kontratua kontratazio arloko errekurtsio berezia jartzeko modukoa bada, ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerari eta hautagaierari bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen. Erakunde kontratatzaileak, aurreko lerrokadan aipatutako epea igarotakoan eta, betiere, epe horretan kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere bost eguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita, eta era berean jardungo du errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak etendura kentzen duenean ere.
- (ii) Beste kasuetan, kontratuaren formalizazioa 15 egun balioduneko epean egin beharko da, lizitatzailerari eta hautagaien esleipenaren jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

Aparteko kasu gisa, kontratuaren formalizazioa atzeratu ahal izango da, karatularen **25. puntuan** aurreikusten den eskaintzak mantentzeko epearen mugara arte, obra abiatzeko beharrezko lizentzia eta baimenak lortzen diren bitartean.

Kontratua ez bada formalizatzen esleipendunari egozteko moduko arrazoiak tarteko, behin-behineko bermearen zenbatekoan -horrelakorik eskatu bada- behin betiko bermea konfiskatzea erabaki dezake kontratazio organoak.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Alderdietako edozeinek eskatu ahal izango du hori eskritura publiko bihurtzea; eskritura emateko gastuak eskaera egiten duen alderdiaren kontura izango dira.

Kontratuen formalizazioa erakunde kontratatzaileak daukan kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kopurua dela eta SPKLTBren 154. artikuluan eskatzen diren hedabideetan bezalaxe.

Kontratua formalizatzetikostu eta zerga guztiak esleipendunaren kontura izango dira.

5. **BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**

1. **Jakinarazpenak**

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo dira jakinarazpenak. Bereziki, posta elektronikoko bidez egin daiteke, lizitatzailerari edo hautagaierari proposamenak aurkezterakoan adierazitako helbidera bidaliz, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan. Dena den, jakinarazpenak baztertzat jotzeko epea bost eguneko izango da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 59.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. Prezioen berrikuspena

Prezioen berrikuspenari dagokionez, karatularen **22. puntuan** adierazitakora joko da, horretan jasoko baita prezioak berrikustea bidezko den ala ez, horretarako aplikatzeko formularekin batera.

3. Epeak

Kontrako berariazko adierazpenik ezean, baldintza-agiri honetan aipatzen diren epe guztien erreferentziak egun naturalak direla ulertuko da.

4. Publizitate gastuak

Lehiaketa honetako publizitate gastu guztiak (hala dagokionean egunkarietan argitaratutako iragarkiak barne) enpresa esleipendunaren kontura izango dira, karatularen **23. puntuan** horrela xedatzen denean. Gastu horien gehienezko zenbatekoa karatularen puntu horretan bertan adierazten dena izango da, eta erakunde kontratatzaileak enpresa esleipendunari fakturatuko dizkio, kontratua formalizatu baino lehen.

Ordizian, 2016ko ekainaren 5ean

I. ERANSKINA
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

[Lizitazio honi dagokion dokumentazio teknikoa jasotzeko lekua honakoa izango da: Goiekiren bulegoak, Mallutz Industrialdea, 18.Pab.n; PK.: 20240, ORDIZIA, (GIPUZKOA)]

II. ERANSKINA
KONTRATUA eta DIRULAGUNTZAREN EBAZPENA

[Aparteko eranskin batean doa]

III. ERANSKINA

ABAL EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

(Kreditu-erakundearen edo elkar bermatzeko sozietatearen izen soziala) erakundeak [IFK: _____; jakinarazpen ondorioetarako helbidea: _____; posta-kodea: _____], eta haren izenean (ahaldunen izen-abizenak) ahaldunek, behar besteko ahalmena baitute ekitaldi honetan hura behartzeko, dokumentu honen atzealdean egindako ordezkartzaren egiaztapenetik atera denaren arabera,

[abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala (IFZ: _____)] ABALATZEN DUTE, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateginean xedatuaren indarrez, Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontratua esleitzeko deitutako lehiaketan parte hartzeagatik GOIERRIKO EKIMENA, S.A.ren (GOIEKI) aurrean (IFK: A-20.460.747; helbidea: Mallutz Industrialdea, 18. pab., 20240, Ordizia, Gipuzkoa) izango dituen obligazioei aurre egin ahal izateko behin-behineko berme kontzeptuan, _____ **EUROKO** (_____ **EURO**) zenbatekoaz.

Erakunde abal-emaileak bere ardurapean adierazten du betetzen dituela urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusten diren baldintzak. Abal hau obligatu nagusiarekiko era solidarioan ematen da, berariaz uko eginez eskusio onurari, eta GOIEKIren lehen errekerimendua jaso orduko ordaintzeko konpromisoaz, lehen aipatutako lege testuetan aurreikusten diren baldintzei jarraikiz.

Abal hau indarrean egongo da, harik eta GOIEKIk edo horren izenean legez gaitzen denak baimena eman dezan arte bai baliogabetzeko bai itzultzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateginean eta legedi osagarrian ezarritakoarekin bat.

(lekua eta data) [●].

(erakundearen izen soziala) [●]

(ahaldunen sinadura) [●]

KAUZIO ASEGURUAREN ZIURTAGIRI EREDUA (BEHIN-BEHINEKO BERMEA)

[●] ziurtagiri-zenbakiak, [aseguratzailearen izena, (helbidea: _____; IFZ: _____)] (aurrerantzean “aseguratzailea”), behar bezala ordezkatzan duelarik _____ jaunak/andreak, honek ekitaldi honetarako ahalmena baitu [ahalak adierazi eta askiespenerako kopia erantsi]-ren indarrez.

[enpresa aseguruaren izena (IFZ: _____)] ASEGURATZEN DU, aseguru-hartzailezat (aurrerantzean “aseguru-hartzailea”, [erakunde kontratatzailearen izena]ren (aurrerantzean “aseguratua”) aurrean, _____ **EUROKO** (_____ **EURO**) zenbatekoraino, Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontratua esleitzeko deitutako lehiaketan parte hartzeagatik GOIERRIKO EKIMENA, S.A.ren (GOIEKI) aurrean (IFK: A-20.460.747; helbidea: Mallutz Industrialdea, 18. pab., 20240,

Ordizia, Gipuzkoa) izango dituen obligazioei aurre egin ahal izateko behin-behineko berme kontzeptuan.

Aseguratuak bere ardurapean adierazten du betetzen dituela urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 57.1 artikuluan aurreikusten diren baldintzak.

Aseguruaren baldintzak honakoak dira:

- (i) Prima ez ordaintzeak –bakarra izan, lehenbizikoa izan edo ondorengoak izan– ez dio aseguratzaileari kontratua suntsiarazteko eskubiderik emango; aseguru ez da azkenduko, aseguratzailearen babesa ez da etengo, eta aseguratzailea ez da dagokion obligaziotik libre geratuko, bermea gauzatu behar badu ere.
- (ii) Aseguratzaileak bere gain hartzen du aseguruari kalte-ordaina emateko konpromisoa, errekerimendua jaso orduko, eta ezingo ditu aseguruaren kontra jarri Aseguru Hartzailearen kontra egoki dakizkiokeen salbuespenak; eta ezingo du eragozpenik jarri inolako ordainketa-errekerimenduren aurrean, Aseguru Hartzaileak planteatzen dituen eragozpenak direnak direla.
- (iii) Aseguratzaileak gehienez bost (5) egun naturaleko epea izango du aseguruak eskatutako ordainketak egiteko, horretarako idatziz eta _____, _____ helbidera egiten dion errekerimendutik kontatzen hasita. Aseguruak eskatzen dituen ordainketak behin edo gehiagotan egingo dira, hark adierazten duenaren arabera, betiere ordainketen baturak gainditzen ez badu zenbateko aseguratua.
- (iv) Ordainketak aseguruaren jakinarazpenean adierazten den bankuko kontuan egingo dira, eta horien gainean, edo horien kontura, ez da inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontraerreklamazio, kenkari edo atxikipenik izango, ez orain ez etorkizunean.
- (v) Kauzio aseguru hau indarrean egongo da harik eta aseguruak edo honen izenean horretarako legez gaitzen denak baliogabetzea edo itzultzea baimentzen duen arte.
- (vi) Aseguru hau espainiar zuzenbidearen arabera arautuko da. Berme honen indarrez sortzen diren gorabeherak obra egiten den lekuari dagozkion auzitegien mendean geratuko dira, modu eskusiboan; izan ere, alderdiak auzitegi horien jurisdikziopean geratzen dira, eta berariaz uko egiten diote egoki dakiekeen bestelako jurisdikzio orori.

Lekua eta data [●]

Sinadura [●]

Aseguratzailea [●]

IV. ERANSKINA

BANKUKO ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[●] bankuak, (aurrerantzean “**bankua**”) eta haren izenean eta ordezkari gisa [●]k, ekitaldi honetan obligatzeko behar besteko ahalmenez, [●]ko [●]aren [●](e)ko dataz eta [●]ko notario [●]ren aurrean eman baitzizkioten, haren protokolo [●] zenbakiaz, eta ahalmen horiek baliogabetu zein aldatu ez direla ziurtatzen baitu.

ABALATZEN DU, lehen errekerimenduan eta solidarioki, [●] sozietatea (aurrerantzean “**sozietatea**”) (IFK: [●]; helbidea: [●] kalea), [erakunde kontratatzailearen izena]ren aurrean (aurrerantzean “**onuraduna**”) (IFK: [●]; helbidea: [●] kalea), gehienez ere (letraz) [●] euroko (zifraz) [●] kopururaino (aurrerantzean, “**zenbateko bermatua**”), Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontraturako prestazioa behar bezala eman eta gauzatzetik ondorioztatzen diren ordainketa obligazio orotarako, kontratu horretarako aukeratua izan baita sozietatea, eskaintza ekonomiko abantailatsuena aurkeztu duelako, Bankuak dagoeneko badakien moduan.

Abalaren baldintzak honakoak dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ordena, eskusio eta zatiketa onurei, edozein motatako defentsa planteatzeari bezalaxe.
- (ii) Abal hau izaera abstraktukoa da. Beraz, ez da beharrezkoa onuradunak bermea gauzatzeko dituen arrazoiak adieraztea edo justifikatzea, eta bankuak ezingo du eragozpenik jarri bermearen konturako inolako ordainketa-errekerimenduren aurrean, Sozietateak planteatzen dituen eragozpenak direnak direla.
- (iii) Bankuak ordaindu egin beharko ditu onuradunak eskatzen dizkion kantitateak, gehienez ere bost (5) egun naturaleko epean, onuradunak horretarako idatziz eta [●] helbidera egiten dion errekerimendutik kontatzen hasita.
- (iv) Bankuak onuradunak eskatutako ordainketak egingo ditu, behin edo gehiagotan, azken honek adierazten dionaren arabera, betiere ordainketen baturak gainditzen ez badu zenbateko bermatua.
- (v) Ordainketak onuradunaren jakinarazpenean adierazten den bankuko kontuan egingo dira, eta horien gainean, edo horien kontura, ez da inolako zerga, eskubide, kargu, konpentsazio, kontraerreklamazio, kenkari edo atxikipenik izango, ez orain ez etorkizunean.
- (vi) Abal honek iraupen mugagabea edukiko du, harik eta onuradunak, idatziz, baliogabetzea baimentzen duen arte.
- (vii) Berme hau espainiar zuzenbidearen arabera arautuko da. Berme honen indarrez sortzen diren gorabeherak obra egiten den lekuari dagozkion auzitegien mendean geratuko dira, modu eskusiboan; izan ere, alderdiak auzitegi horien jurisdikziopean geratzen dira, eta berariaz uko egiten diote egoki dakiekeen bestelako jurisdikzio orori.

Berme hau Berme Erregistro Berezian inskribatu da, [●] zenbakiaz, 20[●]ko [●]aren [●](e)an.

(lekua eta data)

(erakundearen izen soziala)

(ahaldunen sinadura)

V. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOekin KONTRATATZEKO GALARAZPENIK EZ DUELA KOA

[•] jaunak/andreak (ondorio hauetarako helbidea: [•]; posta-kodea: [•], [•] kalea, [•] zk., [•] solairua; NAN: [•]), [bere izenean eta eskubidez “[•]”ren ordezkari diharduela] (helbidea: [•]; posta-kodea: [•], [•] kalea, [•] zk., [•] solairua; telefonoa: [•]; IFK: [•]),

ADIERAZTEN DU: [ni neu ez nagoela/nik ordezkutzen dudana ez dagoela] kontratatze galarazpenaren mendean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruzko Testu Bategineko 60. eta 61. artikuluek diotenarekin bat, eta adierazpen honek berariaz jasotzen dituela indarrean dauden xedapenek ezartzen dituzten zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean egoteari buruzko zertzeladak, eta konpromisoa hartzen dudala baldintza horiek frogatzeko agiria aurkezteko kontratua formalizatu baino lehen, horretan esleipendun ateratzen banaiz.

[•]n, 20[•]ko [•]aren [•](e)an

[•].

Ahalordez

[•] jauna/andrea

VI. ERANSKINA

PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA EPE PROPOSAMENA

[●] jaunak/andreak (ondorio hauetarako helbidea: [●]; posta-kodea: [●], [●] kalea, [●] zk., [●] solairua; NAN: [●]), [bere izenean eta eskubidez “[●]”ren ordezkari dihardudala] (helbidea: [●]; posta-kodea: [●], [●] kalea, [●] zk., [●] solairua; telefonoa: [●]; IFK: [●]),

ADIERAZTEN DUT

- Ezagutzen ditudala Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina egiteko kontratua arautu behar duten baldintza administratibo partikularren baldintza-agiria eta bestelako dokumentazioa.
- Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela indarrean dagoen araudiak kontratu hau gauzatzeko eskatzen dituen baldintza eta obligazio guztiak, eta proposatzen dudala kontratu honen xedea, hau da, Ordiziako Goierri Berrikuntza Gunean Enpresa Inkubagailua hartzeko eraikina, [zenbatekoa letraz eta zifraz adierazi] euroan egitea, BEZaren kontzeptuan dagokion [zenbatekoa letraz eta zifraz adierazi] euroko kopurua gehituta.
- Kontratu hau gauzatzeko, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita guztira [letraz eta zifraz adierazi] hilabeteko epea proposatzen dudala.

[●]n, 2016ko [●]aren [●](e)an.

Ahalordez _____

[●] jauna/andrea (*Aldi baterako elkarteen kasuan, elkartekide guztiak sinatu beharko dute proposamena).

ESKAINITZA EKONOMIKOAREN TAULA-ERANSKINA.

(A) KEA/proiektua	(B) KEA eskainia	(B)/(A) emaitzako koefizientea
3.292.072,60€		
GS zenbateko finkoa	GS zenbateko finkoa	
35.957,26€	35.957,26€	<u> </u>
GUZTIRA	GUZTIRA	
3.328.029,86€		

Horiz dauden laukiak bete.

* Egin beharreko lanen gaineko kalitate kontrolari dagokionez:

Kalitate probak GOIEKIk kontratatuko ditu, eta proben eta saiakuntzen kostua esleipendunaren kontura izango da, zenbateko finko batez, hau da, obra ziurtatua Kontrata bidez Egiteko Aurrekontuaren zenbateko osoaren % 1eko batez. Ondorioz, portzentaje hori segidako ziurtagiri partzialetatik deskontatuko da (berme kontzeptuko % 10eko atxikipenari gehiturik - karatula honetako 13. puntua); Obra Zuzendaritzak adierazirik Jabetzak kontratatzen duen Kalitate Kontrolerako Kabineteak egiten dituen probak eta saiakuntzak ordaintzeko erabiliko da portzentaje hori. Azken kostuak adierazitako % 1eko hori gainditzen badu, aldean ordainketa Jabetzaren kontura izango da.